

Arartekoaren 2023R-1073-21 Ebazpena, 2023ko martxoaren 17koa. Honen bidez, Santurtziko Udalari gomendatzen zaio indarreko araudian jasotzen diren baldintzetan erantzun diezaiela udal-taldeek dokumentazioa eskuratzeko egiten dituzten eskaerei.

Aurrekariak

I.- EH Bildu Santurtzi udal-taldeak esku hartzeko eskatu zion Arartekoari, Santurtziko Udalak informazioa eskuratzeko eskaerak izapidetzean izandako jokaeragatik.

Kexagileak adierazi zuen ez zegoela ados informaziorako sarbide-eskaerei erantzuteko orduan hainbeste atzeratzearekin, ezta eskatutako dokumentuen kopiak eskuratu ezinarekin ere, bere esanetan ezintasun horrek zaildu egiten dielako eginkizunak normal betetzea. Era berean, adierazi zuen arduradun politikoei eta osoko bilkurari egoera horren berri eman ziela baina ez zutela arazoa konpondu.

Udalan aurkeztutako eskaeren zerrenda bidali zigun talde kexagileak, administrazio horrek burututako jarduketarekin batera.

Hor ikusi ahal izan dugunez, eskaera egin eta 42 eta 84 egunera erantzun zion udalak zegokion arloan espedientea begiratzeko eskaerari; gainera, ezin izan dute dokumentu horien kopiarik lortu, eta, beste kasu batzuetan, udalak ez du erantzun ere egin.

Kexagileak jakitera eman zigunaren arabera, proiektu baterako sarbidea eskatzen denean, eskaeraren barruan sartzen da proiektuaren kopia, beren bitartekoen bidez irakurri eta aztertu ahal izan dezaten proiektua eta, kontu teknikoren bat ulertu ezean edo proposamenen bat egin nahi izatekotan, dagokion arloan hitzordua eskatu ahal izan dezaten, delako gaia jorrazteko. Gaineratu zuen beti egin izan dela horrela eta ez dela inoiz arazorik egon.

Kexari erantsitako dokumentuetan ikusi dugunez, egindako sarbide-eskaerek (eskatutako dokumentuen kopia barne hartuta) zerikusia zeukaten zinegotziek toki-gobernuaren kontrol-jardueran parte hartzeko eginkizunarekin eta informaziorako sarbidearekin, eta eskaerak zehatzak eta xeheak ziren, ez orokorrak.

II.-Agiriak eta kexaren zioak aztertu ondoren, Arartekoak idazki bat bidali zuen Santurtziko Udalera. Arartekoak, idazki horren bitartez, espedientea abiatu zuen pertsonak adierazitako arrazoiak aipatzeaz gain, gaiaren funtsari buruzko zenbait argumentu azaldu zituen, eta udalari informazioa eskatu zion kexa-idazkian zerrendatzen ziren informazio-eskaerei buruz, EH Bildu Santurtzi udal-taldeak eskatutako kopiak ematea galarazteko arrazoiez galdetzearekin batera.

Bidalitako idazkian, zehazki, informazioa eskuratzeko eskaera guztiak zehazten ziren, baldin eta haien kopiarik bidali ez bazen. Bestalde, Santurtziko Udala

espedientea ikusteko hitzordua ematean asko atzeratzen zela edo, are, batzuetan erantzuten ez zuela adierazi zuen.

Halaber, zinegotziek informazioa eskuratzeko duten eskubidea erregulatzen duen araudiari buruzko eta eskubidea asebetetzeko epeei buruzko zenbait gogoeta egin zituen, Santurtziko Udalari iritzia eskatzeaz gainera. Udalak eskaera horri erantzun ez zionez, errekerimendua bidali genuen.

III.- Santurtziko Udalak, azkenean, errekerimendu horri erantzun zion, honako hau adieraziz:

“El Ayuntamiento de Santurtzi, desde sus diferentes áreas municipales y organismos autónomos, ha dado respuesta a todas y cada una de las solicitudes realizadas por el grupo municipal EH Bildu Santurtzi y que se detallan en su escrito.

Asimismo, el grupo municipal EH Bildu ha tenido acceso a los expedientes referenciados, y se le han proporcionado los medios necesarios para la realización de copias con objeto de facilitar la información requerida. Todo ello, sin perjuicio del trabajo que el personal técnico municipal realiza diariamente en el Ayuntamiento y con el fin de no paralizar la labor técnica ante tal volumen de petición de información”

IV.- Erantzunaren hitzak ikusita eta hitzok kexagilearekin kontrastatuta, kexagileak idazki bat bidali zuen, artean bidali gabeko dokumentuen kopia-eskaerak zerrendatuz.

Igorritako zerrenda ikusirik, zinegotziek informazioa eskuratzeko duten eskubideari buruz eta eskubide hori baliarazteko epeei buruz egindako gogoetak berretsi egin zizkion Arartekoak Santurtziko Udalari, administrazio-isiltasunaren zentzua (kasu honetan, positiboa) ahaztu gabe. Aurrerago azalduko ditugu gogoeta horiek.

Era berean, erakunde honek, igorritako idazkian zerrendatzen diren eta, Santurtziko Udalaren esanetan, kexagilearen eskura jarri diren dokumentuak eman izana egiaztatzeko ziurtagiria (entrega-eguna, ordua eta tokia) eskatu zion, eta, kexagilearen esanetan eman gabe zeuden dokumentuei dagokienez, zehaztutako espedienteen kopiak nola emango ziren azaltzeko eskatu zion, baita kopiak eman izana egiaztatzeko justifikazioa ere (entrega-eguna, ordua eta tokia).

Azkenik, Arartekoak informazioa eskuratzeko eskaeren epea ez betetzeko arrazoiei buruzko informazioa eta ez-betetze hori konpontzeko neurriak eskatu zizkion. Eskaera horri erantzun ez zionez, errekerimendua bidali zion.

V.-Santurtziko Udalak, azkenean, erantzun-idazkia bidali zuen, non udal-talde kexagileak eskatutako espedienteen eta dokumentuen zerrenda jasotzen baitzen: 12 espediente ziren (horietatik 9, 2020ko abenduaren amaieran eskatu ziren; 1 2021eko urtarrilaren hasieran, eta 2, 2021eko maiatzaren amaieran). Udalak

2022ko martxoaren 25ean eta apirilaren 6an jarri zituen espedienteok talde horren eskura, erakunde honi igorritako dokumentazioan justifikatzen denaren arabera.

Alabaina, udalak ez du ezer esan ez bidalitako gogoetei buruz, ez informazioa eskuratzeko eskaerak epean betetzea galarazten duten arrazoiei buruz, ez egoera hori konpontzeko neurriei buruz.

Udal-talde kexagileak adierazi zuen kexa jartzea eragin zuten informazio-eskaera gehienei arreta eman zaiela.

Bestalde, adierazi zuen 2021eko abenduaren 23tik aurrera aurkeztutako beste 25 eskaera daudela betetzeko.

Kexagileak, bete gabeko informazio-eskaeren berri emateaz gainera, honako hau adierazi zuen:

“kasurik hoberenean jasotzen ditugunean, atzerapen handiegiarekin gertatzen da hori, obrak edo lanak egin edo egiten hasi ondoren.”

Eskaera egin eta hilabete batzuetara deitzen zaie, ikusi ahal izateko, eta ez zaie kopiarik ematen.

“Ahoz edo modu labur eta eskasean erantzuten zaie” eta, batzuetan, egindako txosten edo lanen kopiarik lortu gabe eta ikustera joan ahal izateko deialdirik egin gabe.

Azkenik, honako hau adierazi du *“Korporazioko kide geran aldetik, ez dugu kontratu txikien zerrendetarako sarbide zuzenik, baina, beste edozein auzokideak bezala ezagutu nahi bagenitu ere, Udalaren web orian ez dira hiruhilekoak amaitu bezain laster azaltzen, nahiko berandu baizik, eta, ondorioz, ez dugu Udal honek egindako kontratu txikien berri”*.

Kexan adierazitakoa ikusi eta Santurtziko Udalak emandako informazioa aztertu ondoren, Arartekoak honako gogoeta hauek egiten ditu:

Gogoetak

I.- Zinegotzien eginkizunak gai publikoetan parte hartzeko eskubidean du adierazpenik behinena, zeina Espainiako Konstituzioaren 23. artikuluan jasotzen baita. Bada, jurisprudentzia-irizpen errepikatuen arabera, legez konfiguratu beharreko oinarritzko eskubide bat da eskubide hori, eta, beraz, legean jasotzen diren baldintzekin bat etorri baliatuko da.

Hala, Konstituzio Auzitegiaren arabera, Espainiako Konstituzioaren 23.2 artikulua bermatu egiten du herritarrek eginkizun eta kargu publikoetara berdintasun-baldintzetan eta legeek adierazten dituzten betekizunekin iristeko duten eskubidea, eta, halaber, bermatu egiten du kargu horiek eskuratzen dituzten herritarrek

karguotan jarraitu ahal izatea eta legeak xedatzen duenarekin bat bete ahal izatea (Konstituzio Auzitegiaren 208/2003 Epaia eta Konstituzio Auzitegiaren 169/2009 Epaia).

Gai publikoetan parte hartzeko eskubidea legez konfiguratu beharreko eskubidea bada ere, udalkideei Konstituzioaren arabera dagokien ordezkari-eginkizunari berezkoa zaion multzoko eginkizunetakoak dira, besteak beste, udal-gobernua kontrolatzeko jardueran parte hartzea, udaleko osoko bilkuraren eztabaidetan parte hartzea, organo horretan botoa ematea edota aurreko eginkizun horiek betetzeko behar den informazioa lortzeko eskubidea baliatzea (Konstituzio Auzitegiaren 2009ko uztailaren 9ko Epaia).

Udalkideen eskubideen barruan, arreta berezia jarri behar diogu informazioa eskuratzeko eskubideari, praktikan oso garrantzitsua baita: ezinbesteko tresna da, udalkideek behar besteko ezagutzarekin bete ahal izan ditzaten beren eginkizunak (Konstituzio Auzitegiaren 1988ko irailaren 20ko Epaia).

Informazioa eskuratzeko eskubidearen helburua da toki-jarduera gobernatu, kontrolatu eta fiskalizatzeko eginkizunak bermatu eta eraginkor egitea, eginkizun horiek direlako ordezkari-egintzaren funtsezko muina, beren ardurapeko gai publiko asko legearen esparruan eta herritarren mesedetan kudeatzeko (Toki Administrazioaren Europako Gutuna, 1985eko urriaren 15ekoa, 3.1 artikulua).

II.- Goian adierazitako konstituzio-manuari jarraikiz, toki-korporazioetako hautetsiak haien karguan aritzeko araubidea arautu du ohiko legegileak, eta kargua modu eraginkorren batekin izateko eskubidea bermatu die.

Hala, aplikagarriak dira Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 77. artikulua eta Toki erakundeen antolaketa, jarduera eta araubide juridikoaren erregelamendua (ROF) onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 14. artikulua eta hurrengoak. Bada, arau horietan, gai publikoetan parte hartzeko eta eginkizun eta kargu publikoetara legean jasotzen denarekin bat etorri eta berdintasun-baldintzetan iristeko eskubidea aitortzen dira, eta, hortaz, baita, udalerriko herritarrek demokratikoki hautatutako ordezkariak diren heinean, zinegotziei esleitutako eginkizun publikoak betetzeko behar den informaziorako eskubidea ere. Santurtziko Udalak, arauko ahala baliatuz, Udala Erregelamendu Organikoan dauka araututa kontu hori, eta, hortaz, arau horren 74. artikulua eta hurrengoak aplikatu daitezke: toki erakundeen antolaketa, jarduera eta araubide juridikoaren erregelamendua (ROF) osagarria da.

Legez konfiguratu beharreko eskubidea denez, honako hau ezartzen du Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 77. artikulua:

“Todos los miembros de las Corporaciones locales tienen derecho a obtener del alcalde o presidente o de la Comisión de Gobierno cuantos antecedentes, datos o

informaciones obren en poder de los servicios de la Corporación y resulten precisos para el desarrollo de su función.

La solicitud de ejercicio del derecho recogido en el párrafo anterior habrá de ser resuelta motivadamente en los cinco días naturales siguientes a aquél en que se hubiese presentado.”

Bestalde, Santurtziko Udalaren Udal Erregelamendu Organikoaren (ROM) 74. artikuluan, honako hau xedatzen da udalkideek informazioa eskuratzeko kasuetarako: eskaera administrazio-isiltasun bidez onartutzat joko da, eskaera aurkeztu eta bi egun balioduneko epean ezespren-ebazpenik edo -erabakirik ematen ez bada. Artikuluak honela dio hitzez hitz:

“1-. Las solicitudes de documentación o información habrán de ser contestadas en el plazo máximo de dos días hábiles, transcurrido el cual se entenderá otorgado el acceso a la información solicitada, por silencio administrativo.

En términos generales, la información deberá ser consultada en el archivo de las dependencias administrativas allá donde se encuentren.

No obstante, se podrá retirar la documentación sin abandonar en ningún caso las dependencias municipales, bajo la responsabilidad del funcionario encargado de su custodia, y siempre que el concejal interesado firme un recibo por la totalidad del expediente.

Los libramientos o copias se limitarán a los casos mencionados, en cuanto al acceso libre de los concejales a la información, o a los casos expresamente autorizados por el alcalde.”

Udal-araudiak errepikatu egiten du Erregelamendu Organikoaren 16. artikuluan xedatutakoa, ebazpena emateko epea kenduta, hori hobetu egiten baitu.

III.-Transkribatu dugun araudiaren arabera ondoriozta dezakegunez, zinegotziek eskubidea daukate alkatearengandik edo presidentearengandik edo Gobernu Batzordetik jasotzeko udal-zerbitzuek eskura dauzkaten eta beren eginkizuna garatzeko beharrezkoak diren aurrekari, datu edo informazio guztiak, eta sarbide-eskaera bi egun balioduneko epean ebatzi behar da. Bada, **sarbidea eman dela balioetsiko da**, epe horretan ez bada ezespren-ebazpenik edo -erabakirik ematen.

Halaber, araudiak ezartzen duenez, igorpenak edo kopiak aipatutako kasuetara mugatuko dira, zinegotziek informazioa eskuratzeko duten sarbide libreari dagokionean, **edo alkateak berariaz baimendutako kasuetara.**

Santurtziko Udalak kopiak igortzeari buruz (nahiz eta ROMaren 74. artikulua eta ROFaren 16. artikulua aipatutako kasuetara mugatzen dituzten igorpenak, zinegotziek informazioa eskuratzeko duten sarbide libreari dagokionean, edo alkateak berariaz baimendutako kasuetara), egia esan, sarbide-eskaera (eta

dokumentuen kopia-eskaera) administrazio-isiltasunaren bidez baiesten bada, eta kasu honetan horrela izan da, *“no debe entenderse denegado el libramiento de copias en tales casos, pues el silencio presupone admisión de lo interesado, y es cuando la Administración se pronuncia expresamente cuando puede denegar el libramiento de copias.”* (Andaluziako Justizia Auzitegi Gorenaren 2018ko azaroaren 15eko Epaia).

IV.- Nolanahi ere, gardentasunari buruzko legedi estatal eta autonomikoak gainditu egin dituzte zinegotziek udal-informazioaren kopiak eskuratzeko dituzten mugak (zinegotzien sarbide libreko kasuetan eta toki-erakundeko presidentek berariaz baimendutako kasuetan bakarrik eskura zezaketen informazioa), legedi horrek herritarrei aitortzen baitie informazio publikoa doan eta, ahal dela, elektronikoki jasotzeko eskubidea; hots, herritarrek dokumentu elektronikoen kopia jasotzeko eskubidea dute.

Zentzu horretan, Valentziako Komunitateko Justizia Auzitegi Gorenaren 2016ko apirilaren 5eko 261. epaia esanguratsua da:

“(...) se ha vulnerado el art.23 de la Constitución, las sentencias que cita el Ayuntamiento hay que situarlas en su contexto. En los años noventa del siglo pasado obtener copias de toda la documentación podría suponer que la mitad de la plantilla del Ayuntamiento estuviera haciendo fotocopias; en la actualidad, con las plataformas digitales y la posibilidad de entregar copias digitales en un pendrive supone la falta de excusa para no facilitar a los concejales de la oposición todo el material para que puedan cumplir con su cometido de fiscalización y control, esa es su misión como oposición democrática, máxime cuando existe la ley 19/2013, de 9 de diciembre, de Transparencia, Acceso a la Información Pública y Buen Gobierno, donde se pretende que la información-salvo datos relevantes-sea de dominio público”

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak zehazten badu ere bere artikulak osagarriak direla legedi espezifikoaren duten gaitan, lege horren 22.1 artikulak edozein herritarri aitortzen dio informazio publikoa doan eta bide elektronikoan jasotzeko eskubidea. Bada, zinegotziak ezin daitezke egoera okerragoan egon, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea “oinarrizko eskubidea” baita kontrolatzeko eta parte hartzeko eginkizunak bete ditzaten.

Herritarrentzako gardentasunari buruzko legeek egin dituzten hobekuntzak eta aurrerapausoak zinegotzietan ere aplikatu behar zaizkie, toki-araubidearen arloko araua denboran zaharragoa delako eta ez zaiolako aldaketarik egin gardentasun-legeetan ezarritako berritasunak jaso ditzan.

Ez dauka inolako zentzurik herritarrek oro har eskubidea edukitzea informazio publikorako sarbidea eskatzeko eta kopia formatu digitalean eta posta elektronikokoan doan jasotzeko, eskubide hori kargu publiko bat daukaten zinegotzietan ukatzen bazaie. Haur da, udaleko zinegotzietan informazio publikoa eskuratzeko

duten eskubidea ezin daiteke egoera txarragoan egon, herritarrek duten eskubidea baino.

Bestalde, administrazio elektronikoak aurrera egin izanak eta dokumentuak digitalizatu izanak posible egin dute administrazio-espedituetan jasotzen diren informazioa eta datuak dagokion sistema informatikoaren bidez bistaratu eta kontsultatzea, eta horrek zinegotziek egotzita daukaten eginkizuna erraztuko luke, ez luketelako etengabe eta behin eta berriro eskatu beharko delako baimena; gainera, alferrikako lan ugari desagertuko litzateke.

Udal askok udal-espedituek elektronikoki kudeatzeko sistemara zuzenean sartzea baimentzen diete zinegotzi guztiei, eta, horrela, nabarmen murrizten da oposizioko zinegotziek informazio publikoa eskuratzeko eskaerak etengabe aurkeztu beharra; aldi berean, gainera, udal-langileen lan-karga arintzen da.

V.- Gardentasunerako eta publizitate aktiborako araudia.

Udal-taldeak adierazi du ez daukatela, udalkide gisa, kontratu txikien zerrendetarako sarbide zuzenik, eta, halaber, ezin daitezke zerrenda horietara interesdun gisa sartu, gardentasun-ataria ez delako hiruhilekoa amaitutakoan elikatzen, nahiko atzerapen handiarekin baizik. Horrek galarazi egiten du Santurtziko Udalak egindako kontratu txikien berri edukitzea.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak honako hau ezartzen du 8. artikuluan:

1. Titulu honen aplikazio-eremuan aipatzen diren subjektuek ekonomian edo aurrekontuan eragina duten administrazio-kudeaketako egintza hauei buruzko informazioa argitaratu beharko dute, gutxienez:

a) Kontratu guztiak, honako datu hauek adierazita: xedea, iraupena, lizitazio-eta esleipen-zenbatekoa, zein prozeduraren bidez egin den, zein bitartekoaren bidez iragarri den -iragarri bada-, prozeduran parte hartu duten lizitatzailleen kopurua, esleipendunaren nortasuna eta kontratuaren aldaketak. Kontratuetan atzera egin eta kontratuari uko egiteko erabakiak ere argitaratu egin beharko dira. Kontratu txikiari buruzko informazioa hiru hilean behin argitaratu ahal izango da.

Bestalde, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55. artikuluan, eremuko gutxieneko gardentasun-betebeharrak ezartzen dira, honako hauek:

a.(...)

b.(...)

c.(...)

d.(...)

e. Kontratu txikiak hiru hilabete behin argitaratuko dira, modu agregatuan, eta argitaratzen direnetik gutxienez 12 hilabetez emango da horien berri.

Udalaren web-orria aztertuta ikusi dugunez, 2023ko otsailaren erdialdean, udal horren kontratatzailearen profilean, 2022ko lehenengo hiru hiruhilekoetan egindako kontratu txikien zerrenda bat argitaratu zuten, baina ez azken hiruhilekoko.

VI.- Azaldutakoaren arabera, udal-talde kexagileak espediente batzuk eskuratzeko eskaera zehatzak aurkeztu ditu, eta, eskaera horien barruan, espedienteen kopia ere sartzen zen.

Santurtziko Udalak, eskaera horiei erantzute aldera, espedientea ikusteko hitzordua eman dio talde horri, udal-bulegoetan, eskatutako dokumentazioaren kopia eman gabe. Gainera, udal-bulegoetako hitzordua, kasurik onenean, eskaera egin eta 40 egunera eman da. Beste kasu batzuetan, udalak ez du erantzun ere egin.

Arartekoak esku hartu ondoren, udal horrek bete egin du bere egunean eskatu zenaren zatirik handiena (hots, kexa-espediente hau abiarazi zuenaren zatirik handiena), baina, egiazki, kexagileak adierazi digu beste 25 sarbide-eskaera egin zituela 2021eko abendutik aurrera eta Santurtziko Udalak ez duela jokabidea zuzendu, araudi aplikagarria egokitzeko asmoz.

Arartekoak ez daki zergatik Santurtziko Udalak ez dituen betetzen udalkideek dokumentazioa eskuratzeko duten eskubidearen inguruko betebeharrak, igorri digun erantzunean ez baita informazio hori ematen.

Egia esan, bere garaian eskatutako dokumentaziorako sarbiderik eman ez izanak gobernu-, kontrol- eta fiskalizazio-ardurak egoki betetzeko oinarrizko tresnarik edo instrumenturik gabe utzi du udal-talde hori.

Toki-araubidearen arloko legedi espezifikoak (zehazki, Santurtziko Udalaren udal-araudiak) nahi izan du zinegotziek informazioa eskuratzeko sarbidea azkarra izatea, inolako atzerapenik gabea, atzerapenek arrazoizkoa denetik harago zailtzen duelako oinarrizko eskubide bat baliatzea.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Santurtziko Udalari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

Gomendioa

Santurtziko Udalak indarreko araudian jasotzen diren baldintzetan erantzun diezaiela udal-taldeek dokumentazioa eskuratzeko egiten dituzten eskaerei.

Gainera, oro har, Arartekoak Santurtziko Udalari gomendatzen dio azter dezala formularen bat zinegotziek informazioa araudian adierazitako epean eskuratu dezaten eta, administrazio-isiltasunaren kasuan, sarbidea bermatzeko tresnak edo baliabide administratiboak susta ditzala; adibidez, udal-espedienteak kudeatzeko sistemara sartzeko aukera eman dezake, eta, bidez batez, udal-funtzionarioen eta -zerbitzuen lan-karga saihestu edo murriztu.



Azkenik, Arartekoak Santurtziko Udalarari gogorarazten dio gardentasunari buruzko araudian ezartzen den aldizkakotasunaz argitaratu behar dituela kontratu txikiak.

